

Atsedenen ondorioez

Auzokoekin harreman ona duguenez, etxeko giltza uzten diegu oporretan goazenean. Horrela, beren udako bisitek gurean ostatu har dezakete. Oporretatik bueltan, hozkailuan gutxieneko jakiak eta, sukaldeko mahai gainean, kanpoan izan garen bitartean etxera heldu zaizkigun astekariak aurkitzen ditugu txukun-txukun pilaturik. Paper-sorta mardul hori gainbegiratu behar izaten dut eguneroko martxa hartu baino lehen. Erritu bihurtutako ohitura zentzugabe bat da. Ez naiz gai etxera heldu eta hurrengo egunean, etenaldirik izan ez balitz bezala, bizitzarekin jarraitzeko. Beste lekuan (jaioterrian) izan naizen bitartean galdu dudana Berlingo denbora berreskuratzeko modua dira astekariaren paperetan inprimaturik dauden hitzak. Niretzat existitu ez den denbora-espazio baterako giltzatxoak dira.

Gutxienekoa da eguneroko gaien haria jarraitu nahi izatea; beste guztia izaten da gehien interesatzen zaidana. Esaterako, zutabe batean irakurri dut atsedent hartzea komeni zaiola nobela bat idazten dagoenari eta, tarte horretan, berak idatzitakoa ez den zerbait irakurri beharko lukeela. Horixe da, hain zuzen ere, udan egin dudana. Zutabegileak dio kontuz ibili behar duela nobela idazten dagoenak, irakurtzeko aukeratzen duen autoreak bere lanean eragina izango duelako atsedenen ondoren. Arrazoi du, noski, idazten ari den horri begiratzeko toki berri bat finkatuko baitu agian irakurketak. Akaso, dena zalantzan jarraraziko dio. Beste behin ere!

Zutabegileak Karl Ove Knausgard hartu zuen esku artean bere atsedentaldirako; nik beste norvegiarrarekin hasi nuen uda, Tomas Espedalekin. Fikziora jo gabe idazten dute biek, baina biak irakurri dituztenek aho batez diotenez, zein baino zein ezberdinago kontatzen



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

dute kontatzeko. Espedalen idazteko moduarekin maiteminduz hasi nuen uda. Poetikoa du prosa, askea, gardena. Gutxitan suertatzen da norbaiten idazkerarekin maitemintzea, eta merezi du sentimendu horrekin gozatzea. Zeharo esperientzia atsegingarria da, intimoa, sakona. Maitemindu gaituen pertsona batekin gertatzen den bezala, adikzioaren antza duen gehiago nahi izate bat, gehiago behar izate bat eragiten du. Beraz, Espedal bat irakurri eta gero, atoa beste bat erosteko premiari erantzun behar izan nion. Zinemara joateko geratuta nengoen eta, eskerrak, harako bidean, hirugarren liburu dendan aurkitu nuen: tapa bigundun ale merkea.

Idazketatik hartu dudana atsedena luze xamarra izanik, irakurketa gehiagorako astia izan dut. Paul Austerren azkena sartu nuen maletan, irakurgailu elektronikoan. Archie Fergusonen biografiaren lau bertsiokontatzen ditu Austerrek. Bizitza bat harantz edo honantz birarazten duten inflexio-puntuak taula gainean jokatzen du. Gertaera batzuk dramatikoak dira; batez ere heriotzak, dela gerragatik, dela istripuren batengatik. Erabaki, lorpen, porrot gehienak, hain dira xumeak, ezen ohar-kabeen baitoazen. Mota bateko eta bestekeen bizipenen artean dagoen muga ez da beti argia. Denak dira fikziorako abiapuntu, material.

Egunerokoari berriz heldu ahal izateko nire trikimailuekin ari naizela, bururatzaren zait, Espedalekin, dena hankaz gora jarri behar gabe, nire nobelaren idazketan eragina izango ote duen. Ez legoke gaizki. Eta hala balitz, norena litzateke lorpena, berea ala nirea? Literaturaren labirintoan Knausgarden atea ireki izan banu Espedalen ireki ordez? Atsedent hartzean ere, burua ez baitago itzalita, baina lana ez den aktibitateetan galdu behar du lantzean behin. ■